

*Inbertsio-  
plana eta  
parte-hartzean  
oinarritutako  
aurrekontuak*

*/3. orrialdea*



*Udalak saria  
jaso du, bere  
energia-  
kudeaketagatik*

*/2. orrialdea*

*Lege  
Aholkularitzako  
Zerbitzuaren  
balorazioa*

*/4. orrialdea*

*Mello Sariaren  
seigarren edizioa,  
berrikuntzaz  
beteta*

*/5. orrialdea*

*Mendiz  
Mendi Taldea,  
erreferentziazkoa  
ziklo-krosean*

*/6. orrialdea*

## Editoriala

### **Muskizko herritarrekiko konpromisoa**

Ahalegin handia egin dugu, herritarrekiko konpromisoak bete ahal izateko: institutu berria, ibaiertzeko pasealekua, kultura, elkarteak, hobekuntzak auzoetan, hirigintzako plangintza, jolasguneak, eraginkortasun energetikoa, igerilekuak, tenisa, padela...

Konpromiso horietako asko oso aurreratuta edo amaituta daude; beste batzuk, ordea, abiarazten ari dira.

2017ko aurrekontuetarako, ohiko partaidetza-prozesuez gain, foro berria ireki genuen 2016ko abenduan, kultur etxean. Ekimenean interesa zuten herritar guztiek hartu zuten parte, udal baliabideei dagozkien 175.000 euro

**“Konpromiso horietako asko oso aurreratuta edo amaituta daude; beste batzuk, berriz, abiarazteko bidean daude**

zertara bideratu erabakitzeke. Zenbaterako hori txikiagoa zen hasieran, baina herritarren partaidetza handia zela ikusita, handitzea erabaki zen, auzotarren ahalik eta eskari gehien betetzeko.

Idea horiekin, legegintzaldiaren plangintzan hartutako konpromisoez gain, 2017. urterako kontuak onartu ditugu. Aldizkari honetan, betearazteke dauden gai garrantzitsuetako batzuk biltzen dira; horrez gain, Muskizko egunerokoan oso garrantzitsuak diren askotariko gaiak ere jasotzen dira.

Eskerrik asko guztioi, gure herria hobetzen jarraitzen laguntzeagatik.

Besarkada bat.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



### **Nekazaritza Ekologikoari buruzko I. Jardunaldiak**

Muskizko Udalak jarduera-programa bete antolatu du, “Nekazaritza Ekologikoari buruzko I. Jardunaldiak” izenburupean. Hala, jardunaldiok 2017an zehar eramango dira aurrera, eta, egingo diren zazpietatik, aurreneko lauak martxoan eta apirilean izango dira. Gainerakoak ekainean, irailean eta azaroan egingo dira.

Lehen jardunaldia martxoaren 11n egin zen, “Kimatu gabeko frutagintza: frutagintzaren beste ikuspegi bat” izenburuarekin, Areitz Soroaren instalazioetan. Bestalde, apirilaren 25ean eta 27an, Babesten metodoa erabiltzen duen nekazaritza ekologikoari buruzko tailerraren bi jardunaldi teoriko egingo dira, 18:30etik 20:30era bitartean, Kultur Etxeko M aretoan. Apirilako hirugarren jarduera 29an egingo da, larunbatean, eta Areitz Soroaren instalazioetan emango den tailer praktikoa izango da. Horrez gain, hiru informazio-saio egingo dira, ongarriketara organikoari buruz (ekainaren 7an), haziei buruz (irailaren 13an), eta hazitokiei eta izurriei buruz (azaroaren 8an). Horiek guztiak Kultur Etxeko M aretoan egingo dira, 16:30etik 20:30era bitartean.



### **Birziklatze-sistema berriak**

Bideak garbitzeko kontratu berria indarrean sartzearekin, eta zerbitzua hobetzeko helburuz, Muskizen 10 minigune finko egingo dira, udalerrri guztian zehar banaturik, zazpi hondakin-mota birziklatzeko. Honako hauek utzi ahalko dira: CD eta DVD diskoak, fluoreszenteak, bonbillak, tinta- eta toner-kartutxoak, pilak eta bateriak, tapoiak eta gailu elektronikoen hondakin txikiak (mugikorak, kargagailuak...). Udalak edukiontziez hornitzen duen enpresari proposatu dio edukiontzien aurrealdean Muskizko argazki zaharrak agertzeko. Horrez gain, arrandegien hondakinak gaika biltzeko “atez ateko” zerbitzua jarri da abia, kiratsik egon ez dadin.

### **Udalak Hiri Iraunkorra saria irabazi du**

Muskizko Udalak, azken urteetan, berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko egin duen lanak zein energia-baliabidez egin duen kudeaketa egokiak Hiri Iraunkorra sariaren aitormena jaso dute, eta, hala, energia-kudeaketaren alorreko sari nagusia eman diote. Borja Liaño alkateak eta Pedro Serrano Ingurumen eta Enplegu zinegotziak Madrilen jaso zuten saria, Isabel García Tejerina Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroaren eskutik. Saria Fórum Ambiental fundazioak (irabazi-asmorik gabeko erakundea) ematen die urtero iraunkortasuna bultzatzeko proiektu eta jardueren alde apustu egin duten udalei, Ingurumen



Ministerioaren laguntzaz eta Ecoembesekin lankidetzan.





## Inbertsio-plana

**M**uskizko Udalaren aurtengorako inbertsio-planak biztanleen beharriari erantzun nahi die; horretarako, udalerria aisiarako eremuz hornitzeko helburua du, ingurune naturalean txertaturik, aisialdia emateko alternatibak izan daitezkeen, auzoetarako sarbideak birgaitzeko helburuaz gain. Inbertsio-plan honetarako ekarpen nagusia kirol-instalazioak hobetzeari dagokio: El Malecóneko belar artifizialeko zelaiak birmoldatzea, bi padel-pista estali eraikitzea, tenis-pistak estaltzea eta aire zabaleko uda-igerilekuak. Bestalde, Barbadun ibaiko pasealekuaren bigarren fasea garatzea, Itsaslurrerako sarbidea urbanizatzea eta Carrascal, La Campa, Morenillo edo La Casería auzoetarako sarbideak berritzea ere aurreikusita dago. Hezkuntza Sailaren barruan, institutu berria eraikitzea eta musika-eskola baten bideragarritasunari buruzko azterlana egitea. Inbertsio-planean, Eguneko Zentrorako kontu-sail bat ere badago.

## Muskizko parte-hartze bidezko lehen aurrekontuak onartu dira

Muskizko Udalak udalerrian parte-hartzearen bidez egin diren lehen aurrekontuak onartu ditu. Aurrekontua 12.278.700 eurokoa izan da azkenean, eta udal-arduradunek udalerriko bizilagunek aurkezturiko eskaeren %82ri eman ahal izan diote erantzun positiboa; horretarako, herri-tarrek proposaturiko inbertsioei aurre egiteko hasieran ezarritako kontu-saila gehitu egin da, lehengo 100.000 euroetatik 175.000 eurora, bizilagunen aldetik aurreneko parte-hartzezko aurrekontuetan izan diren parte-hartzea eta onarpena direla-eta.

Muskiztarrek, guztira, 101 proposamen egin dituzte, eta Udalak 57ri eman die erantzun positiboa; haietatik, 31 zuzenean sartu dira 2017rako aurrekontuetan, eta 26 dagoeneko gauzatu dira. Bestalde, 26 bakarrik daude aztertze-fasean, edo 2017. urteko inbertsio-planean sartzeko, edo udalez gaindiko beste erakunde batzuekin batera aztertzezko. Azkenik, Udaleko sailen ordezkariek 18 proposamen baino ez dituzte ezetsi, eta, gehienetan, arrazoia izan da tokiko gobernuaren eskumenetik kanpo zeuden jardueratzat jo izana.

### Udal-aurrekontuaren kontu-sail nagusiak

<b>Kale-garriketa, hondakinen bilketa eta kudeaketa</b>	<b>981.972</b>
<b>Lorategietako mantentze-lanak</b>	<b>425.000</b>
<b>Eraikinetako garriketa</b>	<b>424.000</b>
<b>Eguneko Zentroa</b>	<b>799.000</b>
<b>Etzez etxeko laguntza</b>	<b>455.000</b>
<b>Kiroldegia</b>	<b>1.383.000</b>
<b>Herritarren segurtasuna</b>	<b>689.700</b>
<b>Langileria-gastuak</b>	<b>3.100.000</b>
<b>Ikastetxeak</b>	<b>300.000</b>
<b>Gizarte-larrialdirako laguntzak</b>	<b>150.000</b>
<b>Herri-jaiak</b>	<b>171.000</b>
<b>Euskaltegia / Euskara</b>	<b>300.000</b>
<b>Ingurumena</b>	<b>170.000</b>
<b>Gaztegunea</b>	<b>212.000</b>
<b>Enpleguaren sustapena</b>	<b>421.000</b>
<b>Kultura-sustapena, liburutegia, Meatzari</b>	<b>462.300</b>



## Muskizek institutu berria izango du

Duela urte batzuk, Muskizko Udalak udalerrian institutu publiko berria eraikitze-prozesuari ekin zion. Ikastetxe horrek ahalbidetuko zuen bertako nerabeek Batxilergoa Muskizen bukatu ahal izatea, udalerritik kanpora joan behar izan gabe.

Prozesu horren bukaeran, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Cantarrana eskola publikoa osatzen duten zenbait ondasun lagatzea onartu da, alegia, haurren musika-txaleta, gimnasioko beheko solairua, eta jolastokitza erabiltzen den lursaila. Guztira, 2.673,83 metro koadroko azalera duen lursaila laga da jolastokiari dagokionez, gimnasioko 343,9 metroko azalera gehituta. Lursailaren barruan, La Cestera delakoaren eraikina eta lurra daude. Udalak ia 90.000 euro inbertitu zituen han, eta gaur egun Cantarrana ikastetxe publikoko ikasleentzako eskola-ortu bat dago bertan.

Udalak, bestalde, Eusko Jaurlaritzari eskatuko dio BHI berriaren eraikuntza bateragarria izan dadila eskola zaharrek edo haren egiturazko elementuren batek irautearekin.



## ***Giba-Memerea bidea birgaitzea***

Asfaltatzeko eta Giba eta Memerea auzoak lotzen dituen argiztapen publikoko lineak lurperatzeko lanak bukatu dira, 27.410 euroko zenbatekoan. Obra horietan, zoladura jarri da lurrian, ibilgailuak hobeto igarotzeko eta haizeak eragindako argindar-etenak saihesteko.



## ***Sobalbadunerako irisgarritasuna hobetu da***

Udalak, 26.000 euroko aurrekontuarekin, Sobalbadun auzorako sarbidea hobetu du, arrapala bat eginez, lehen zegoen besteari elkartuta, espaloia eta etxeetara iristeko errepidearen arteko %20ko malda gainditzeko. Obra horrek mugikortasun urriko pertsonen lagunduko die, eta oinezkoen segurtasuna hobetuko du.



## ***Gunitatze-lanak Oiankasen***

Herriko enpresa batek gauzatu ditu gunitatze-lanak Oiankas auzoan, 22.000 euroan. Lan horietan, hormigoizko 8 cm-ko geruza bat jarri da presioz, sare murgilduen bidez indartuta, eta, gero, erretxina eman da euste-hormarekiko elkar-gunean.



## ***Herritarrek balorazio positiboa egiten dute Udalaren Lege Aholkularitzako zerbitzuaz***

Muskizko Udalaren Lege Aholkularitzako Zerbitzuari buruz batez beste egiten den balorazioa, erabiltzaileen aldetik nahiz bertan parte hartu duten profesionalen aldetik, 8,50 puntukoa da, 10etik. Gizarte Ekintza Sailak buztaturiko ekimen horren bidez, udalerriko bizilagunen 99 kontsultari eman zitzaizkien arreta 2016. urtean. Kontsulta gehienak auzi zibilen edo familiako gaien ingurukoak izan ziren, eta jarduera gehiena martxoan, irailean eta urrian bildu zen. Muskizko herritarrek 112 hitzordu eskatu zituzten, Lege Aholkularitzako Zerbitzuko profesionalak arreta emateko, eta haietatik 99 gauzatu ziren, 13 pertsona ez baitziren agertu, azkenean, hitzordura.

## ***Energia-aholkularitza dendei eta ETE-ek***

Muskizko Udalak plan bat jarri du abian dendei eta enpresa txiki eta ertainei energia-aholkularitza emateko, eta bertako enpresek oso harrera ona egin diote. Ingurumen Sailak 41 enpresa bisitatu ditu, eta, haietatik, 31k azterlana egin dute (%75). Gainerakoetan, batzuek ez dute interesik agertu, eta beste batzuek azterlana egin berri dute; hartara, hilabete batzuk barru berrikusi egingo zaie, eta denda eta ETE interesatuen ehunekoa %90era igoko da orduan. Oraingoz, 18 enpresak dute dena kudeatuta, potentzia-doikuntzak egitea eta energia aurrezteko neurriak (EAN) aplikatzea falta direla; neurri horien artean, LED argiak jartzea, kondentsadoreak instalatzea eta eraginkortasunezko beste neurri batzuk daude; batez beste %18,03 aurreztuko da, 12.383 euro guztira. Kudeatu gabe, baina azterlana eginda, beste 13 enpresa daude, eta aurreikusten da 25.528 euro aurrezteko, hau da, %18,45 batez beste, eta hori handitu egingo da, potentzia-doikuntzak egin eta EANak aplikatu eta gero. Horrez gain, ekainean, auzoetan karpak jarriko dira, herritarrei aholkularitza emateko eta kudeaketa errazteko.





## Mello Sariaren seigarren edizioa, berrikuntzaz eta elkartasunez beteta

**M**uskiz erreferentziarako lekua izango da, beste behin, mendia eta kirola maite dutenentzat. Mello Saria 2017 mendi-lasterketa eta mendi-martxaren seigarren edizioa apirilaren 23an (igandea) izango da, udalerrian bertan; El Cerro de la Llosa kultur eta kirol elkarteak antolatzen du Mello Saria. Edizio honetarako, antolakuntzak zenbait aldaketa egin ditu ibilbidean. Mendiko esentzia mantenduta eta tarte gogoragoak gehituta, martxa eta lasterketa iaz baino luzeagoa izango da; 24,5 km izango ditu, eta 2.800 metroko desnibela izango du. Gainera, beste gailur bat ezagutuko dugu: Peña Amarilla. Bestalde, beste bi distantzia ere eskaintzen dira: bata, lasterketarako, 12 kilometrokoa; bestea, 15 kilometrokoa, martxarako.

Martxa Txikiko protagonistak txikiak izango dira. Haurrei zuzenduta, 8,5 kilometroko ibilbidea eta 400 metroko desnibela dauka ibilbidea. Gainera, aurten, antolakuntzaren kausa solidarioa haurren minbiziaren aurkako borrokan eta hezur-muinaren donazioan laguntzea izango da; hala, bildutakoa Biocruceci emango zai.

### Mello Saria Txakur Trail

Mello Sariak lehenengoz hartuko du txakurkros modalitateko proba bat; apirilaren 22an (larunbata) izango da. Lasterketa tiratze-sistema baten bidez gerrian lotutako txakur batekin egitean datza, eta Euskadiko Txakurkros Ligaren barnean dago. 7 kilometroko luzera izango du.



## Asiako liztorraren aurkako kanpaina

Muskizko Udaleko Ingurumen Sailak azken urteetan egiaztatu du udalerriko zenbait aldetan Asiako liztorren habiak agertu direla. Hori dela eta, Asiako liztorrei tranpak jartzeko programa bat eramango da aurrera ekainera bitartean, 62 tranpa jarrita hainbat tokitan.



## Muskizko emakumeen oroimen historikoa berreskuratzea

Muskizko Udaleko Hirigintza Sailak, Berdintasun eta Giza Eskubideen Sailarekin lankidetzan, emakumeek Muskizko historian zehar izaniko rol garrantzitsua berreskuratu du, mural batzuk jarri Villanueva auzoko garbategian. Luís Olaso eta Óscar Martín dira muralon egileak, eta helburua da emakumeen garrantzia gordetzea eta haren balio historikoa nabarmentzea.



## Gaztegunea gazteen topagune legez sendotu da

Muskizko Gaztegunea, Meatzari plazan, sendotu egin da gazteen erreferentzia-puntu legez udalerrian. Batez beste, 1.720 erabil-tzaile izaten ditu hilean, 15.000 guztira 2016. urtean. Gehikuntza gorantz joan da azken urteetan; hala, 12 urtetik gorako gazteek 54 jardueratan parte hartu dute, eta, ildo horretan, honakoak nabarmendu behar dira: argazki-lehiaketak zein literatura-lehiaketak, dantza modernoko erakustaldiak, futbolinako edo Playstationeko txapelketak, eta eskulan tailerrak. Horrez gain, ikasturte honetan bi entsegu-areto eta zenbait entretenimendu-ekipo berri dira.



## Elkarrizketa



### **Mendiz Mendi Taldea, “errodajea egiteko” talde ona**

Muskizko Mendiz Mendi Taldea txirrindularitza-eskolak 25. urteurrena bete zuen abenduan, eta erreferentziazko kluba bilakatu da kirol horren munduan hasi nahi duten muskiztar haurrentzat. Aurten zorioneko dago, klubeko kideetako batek, Anne De Pablo gazteak zilarrezko domina bat lortu baitu Estatuko Txapelketan.

#### **G/ Zenbat urte daramatza Mendiz Mendi Taldeak txirrindulariak prestatzen?**

*E/ Kluba orain dela 25 urte sortu zen, eta, hortaz, joan den abenduan urteurren biribil horren ospakizunetan ibili ginen. Santurtzin hasi zen, baina badira 15 urte Muskizen gaudela. Gurekin, nazioarteko ospea lortutako txirrindulariak trebatu dira, hala nola, Omar Fraile, Jonathan Lastra, Eneko Corrales... eta horrek egindako lana berresten du.*

**“Erreferentziazko txirrindularitza-eskola bilakatu gara, inguruko hainbat herritako neska-mutilak etortzen dira entrenatzera**

#### **G/ Zenbat neska-mutil daude klubean?**

*E/ Gaur egun, 13 haur ditugu eskolan, baina garaiaren arabera izaten da hori. Batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago. Txikiak 8 urtetik aurrera hasi ohi dira, eta haiekin dagoen helburu nagusia da disfrutatzea eta ongi pasatzea udalerrian zehar egiten ditugun irteeretan.*

#### **G/ Aurten zorioneko zaudete, Anne De Pablok lortutako dominarekin.**

*E/ Baziren urte batzuk Anneren gorako joera ikusten zela. Kirol indibiduala eta sakrifizioa egin beharkeoa da, eta Anne saiatua da oso. Domina ustekabea izan zen guztiontzat, baina egunero egin duen ahaleginaren saria da.*

#### **G/ Zuri Anne, zure palmaresean zilarrezko domina bat badaukazula, zer sentitzen da ziklo-kroseko kategorian**

#### **Espainiako txapelkunordea izatean?**

*E/ Estatuko txapelketan zilarrezko domina irabaztea orain arte gertatu zaidan onena da. Helmugara iritsi nintzenean, ez nuen sinesten. Ez nuen espero podiumera igotzea, egia esan.*

#### **G/ Erraza da ikasketak eta entrenamendua bateratzea?**

*E/ Antolatuz gero, dena da erraza. Astegunetan, ikasketei ekiten diet, eta asteburuan, entrenamenduei.*

#### **G/ Muskizko, zure herriko, klub batean prestatzea aukeratu zenuen. Mendiz Mendi erreferentzia da kirol honetan hasi nahi duten gazteenentzat?**

*E/ Nire iritziz, Mendiz Mendi da eta izango da dagoen klubik onena, dudarik gabe. Klubean hazi naiz, nire bigarren familiaren modukoa da, eta talde on bat errodajea egiteko.*



### **Arrakasta Inauterietako parte-hartzean**

Muskizko Inauterietan 23 taldek eta bizilagun ugari parte hartu dute, errekor guztiak hautsita. Parte-hartze handienetakoak izan dira azken urteetan, eta sari ekonomikoak izan dira taldeentzat, banakoentzat eta 12 urtetik beherakoentzat. Seguritasun-arrazoak direla-eta, aurtengo eta hurrengo urteetako ibilbidea, eguraldiak aukera emanez gero, Meatzari plazan bukatuko da; bestela, herriko pilotalekura aldatuko da. Horrez gain, lehen aldiz, aurten Inauteri-asteen barrakak instalatu dira San Joan plazako aparkalekuan.



### **Osasun Zentroak Rosa Salas omendu du**

Muskizko Osasun Zentroko profesionalak omenaldia egin zioten Rosa Salas doktoreari, haren erretiroa dela-eta, udalerrian 30 urtez lan egin eta gero. Borja Liaño alkateak Muñatoizko gazteluaren eskultura bat oparitu, eta urte askoan bizilagunen mesedetan egindako lana eskertu zion. Ekitaldian lanbideko kideak, familiar-tekoak eta Osasun Zentrora hurbildutako zenbait herritar izan ziren.